3. Barnean edo beste erakunderen batean hautaketa-probak egiteko, horiek egiteko behar besteko denbora emateko lizentziak eman ahalko dira.

4. Euskarako ikastaroetara bertaratzeko salbuetsita dago, hitzarmen honen 46. artikuluan jasotakoaren arabera.

24. artikulua.—Norbere gauzetarako baimen ordaingabea

1. Norbere gauzetarako ordaindu gabeko baimenak eman ahalko dira, ordaintzeko inolako eskubiderik gabe.

2. Baimen horrek elkarren segidako 7 egun naturaleko epea izango du, gutxienez, eta metatutako iraupena ezingo da bi urterik behin hiru hilabetekoa baino gehiagokoa izan; horiek hartzeko, osotasunean edo zati batean, beharrezkoa izango da enpresari 15 egun lehenago jakinaraztea, zerbitzuaren beharrezko ekiditeko eta langilea ordezkatu ahal izateko, baldin eta langile-kopuru handiak aldi berean eskatzen ez badu, bestela, zerbitzuari kalteak eragingo lizkiokeelako.

25. artikulua.—Zerbitzuan emandako urteengatiko lizentzia: zerbitzuan emandako urteengatik lizentzia hauek edukiko dira

1. Zerbitzuan 15 urte eman dituztenek: 1 egun.
2. Zerbitzuan 18 urte eman dituztenek: 2 egun.
3. Zerbitzuan 24 urte eman dituztenek: 3 egun.
4. Zerbitzuan 27 urte eman dituztenek: 4 egun.
5. Zerbitzuan 30 urte eman dituztenek: 5 egun.
6. Zerbitzuan 33 urte eman dituztenek: 6 egun.

Betetako hirurteko bakoitzeko egun bat gehituko da.

Horiek hartu baino gutxienez 15 egun lehenago aurkeztu beharko da araututako baimenaren eskabidea, eta dagokion sailako arduradunak baimena eman beharko du, zerbitzua behar bezala emango dela ziurtatzeko.

26. artikulua.—Borondatezko eszedentzia

Enpresan gutxienez urte bateko antzinasuna duten langileek borondatezko eszedentzia aitor dakien eskubidea izango dute. Eskatutako eszedentzia hiru urtekoa baino laburragoa bada, enpresak eszedentzia eskatu duena eszedentzia bera amaitzean berriro aurreko lanpostuan hartu beharko du; horretarako, eszedentzia eskatu duena ordezkatzeko kontratuan erreserba-klausula sartu ahalko da. Ezingo du pertsona batek berriro horrelako eszedentzia-motarik aurkeztu, harik eta lau urte igaro arte.

27. artikulua.—Berrito gizarteratzea

Langilea atxilotuz gero, lanpostua gordeko zaio, harik eta epaia eman arte. Absolbituz gero, berriro ere lanpostuan lanean hasiko da, eta, espetxe-zigorra izanez gero, zigor hori bete ondoren, lanpostuan berriro lanean hasteko eskubidea izango du, lanpostua hutsik egonez gero.

28. artikulua.—Gai pertsonalengatiko lizentzia-egunak

1. Gai pertsonalengatiko lizentzia ezarri da, urteko ordutegitik kengarriak diren 7 lanegunez; egun horiek, ahal dela, Gabonetan eta Aste Santuan hartuko dira, gehi errekuera daitezkeen sei egun.

Artículo 23bis.—Permiso por realización de estudios o pruebas de promoción profesional Interna

1. Para la realización de estudios de perfeccionamiento profesional referidos a materias directamente relacionadas con la función o puesto que desempeñan, podrán concederse permisos a los/as trabajadores/as que sean admitidos a la realización de los mismos en centros de formación.

2. El período de duración de este permiso, no podrá exceder del equivalente a un curso académico.

3. Para la realización de pruebas selectivas dentro o en otra Institución se podrán conceder permisos por el tiempo necesario para la realización de las mismas.

4. Queda exceptuada la asistencia a cursos de euskera regulada en el artículo 46 del presente Acuerdo.

Artículo 24.—Permiso no retribuido por asuntos propios

1. Se podrán conceder permisos no retribuidos por asuntos propios, sin derecho a retribución alguna.

2. La duración de este permiso será por períodos mínimos de 7 días naturales consecutivos y la duración acumulada no podrá exceder de tres meses cada dos años, para el disfrute de los cuales en todo o en parte, será necesario notificar a la empresa con una antelación de 15 días, para prevenir las necesidades del servicio y poder proceder a la sustitución del trabajador trabajador/a y siempre que no coincidan en solicitarlo un excesivo número de trabajadores/as, de tal manera que se perjudique el servicio.

Artículo 25.—Licencia por años de servicio: se tendrán las siguientes licencias por años de servicio

1. Para los que tengan 15 años de servicio: 1 día.
2. Para los que tengan 18 años de servicio: 2 días.
3. Para los que tengan 24 años de servicio: 3 días.
4. Para los que tengan 27 años de servicio: 4 días.
5. Para los que tengan 30 años de servicio: 5 días.
6. Para los que tengan 33 años de servicio: 6 días.

Incrementándose un día adicional por cada trienio cumplido

El permiso regulado deberá solicitarse por el trabajador/a, con una antelación mínima de 15 días con respecto a la fecha del inicio del mismo, debiendo de ser autorizado por el responsable del Departamento correspondiente, a efectos de garantizar la correcta prestación del servicio.

Artículo 26.—Excedencia voluntaria

Todo el personal laboral con una antigüedad en la empresa de al menos un año tendrá derecho a que se le reconozca la situación de excedencia voluntaria. Si el periodo de excedencia que se solicitase fuera inferior a tres años, la empresa vendrá obligada a su término a readmitir al excedente en el puesto de trabajo que ocupaba anteriormente, pudiendo incluir a tal efecto la cláusula de reserva consiguiente en el contrato de la persona que viniese a sustituir al excedente. No se podrá volver a solicitar este tipo de excedencia por la misma persona en los cuatro años posteriores.

Artículo 27.—Reintegración social

Al personal que sea detenido por el periodo que fuese, se le reservará la plaza hasta que se produzca el fallo del Tribunal. EN caso de absolución, se reintegrará a su puesto de trabajo y en el caso de condena a prisión, a sus cumplimiento, tendrá derecho a reincorporarse a su puesto de trabajo, en el caso de que exista plaza vacante.

Artículo 28.—Días de licencia por asuntos particulares

1. Se establece una licencia por asuntos particulares de una duración de 7 días laborables deducibles del cómputo horario anual, cuya fecha de disfrute será preferentemente, en las festividades de Navidad y Semana Santa, mas seis días con carácter recuperable.

2. Horiek hartu baino gutxienez 15 egun lehenago egin behar da eskaera, eta saileko arduradunak baimena eman behar du, zerbitzua behar bezala emango dela ziurtatzeko.

29. artikulua.—*Lanaldi-murrizketa*

Edozein langilek izango du bere lanaldia murrizteko eskubidea, bere soldataren murrizketa proportzionalarekin, lanaldi-murrizketa hori beste enpresa edo herri-administrazio batean lan egiteko izan ezean.

30. artikulua.—*Bataioa edo jaunartzea*

Langileen seme-alabenak badira, egun bat hartzeko eskubidea izango da, baldin eta egun hori laneguna bada.

VI. KAPITULUA ORDAINSARIAK

31. artikulua.—*Soldata-igoera*

1. «Etxe Maitia» adinekoen egoitza erakunde autonomoko langileen ordainsariak hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean handitu egingo dira urtero, Basauriko Udaleko langileen lan-baldintzak arautu dituen hitzarmenean (2011ko abenduaren 31 arte indarrean dago) ezarritako zenbatekoen arabera.

2. 2009ko ordainsariak, 2008. urterako onetsitako ordainsarien taulei dagokienez, 2008ko estatuko KPIren baliokidea den portzentajea gehi %1ean handituko dira.

3. 2010eko ordainsariak, 2009. urterako onetsitako ordainsarien taulei dagokienez, 2009ko estatuko KPIren baliokidea den portzentajea gehi %1ean handituko dira.

4. 2011ko ordainsariak, 2010. urterako onetsitako ordainsarien taulei dagokienez, 2010eko estatuko KPIren baliokidea den portzentajea gehi %1ean handituko dira.

5. Soldata-igoera horiek barne hartzen eta xurgatzen dute 2008ko aparteko ordainsarien soldata-masaren %1, bai eta 2009, 2010 eta 2011. urteetarako estatuko eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan kontzeptu horren inguruan ezarritako, ezarritako gero, ehunekoaren soldata-masarena ere.

Bi aldeek onartzen dute 2009, 2010 eta 2011. urteetako igoera horietan ondorio guztietarako egin litezkeen soldata-igoera guztiak sartuta daudela. Beraz, soldaten inguruan ez da beste eskakizunik egongo eta, zehazki, ez da beste eskakizunik egongo Euskal Autonomia Erkidegoko edo estatuko aurrekontu-legeen ondorioz. Horrek esan nahi du hitzartutako soldata-igoera hauek argudia litezkeen hobekuntza guztiak xurgatzen, barne hartzen eta integratzen dituztela.

32. artikulua.—*Soldatak*

Honako egitura dauka nominak:

- Oinarrizko soldata: soldata gordinaren %80.
- Lanpostuaren plusa: soldata gordinaren %20.
- Antzinasuna: hirurtekoaren eta lanbide-taldearen arabera.
- Askotarikoak: plusak, bidaiak, etab.

Gaixotasun edo istripuengatik baxak, lanekoak izan ala ez, lehenengo egunetik ordainduko dira, soldata errearen %100ean, gaueko eta jaiegunetako plusik gabe.

33. artikulua.—*Antzinasuna*

Antzinasuna langileei aitortutako zerbitzuko hiru urterik behin ordainduko zaie; talde bakoitzari hirurteko eta hil bakoitzeko dagokion zenbatekoa ordainduko zaio hirurtekoan.

Urtean 14 ordainsaritan ordainduko zaie. Antzinasunaren igoera kalkulatzeko Basauriko adinekoen egoitzan noiz sartu den hartuko da kontuan.

2. El disfrute deberá ser solicitado con una antelación mínima de 15 días con respecto a la fecha del inicio del mismo, debiendo de ser autorizado por el/la responsable del Departamento correspondiente, a efectos de garantizar la correcta prestación del servicio.

Artículo 29.—*Reducción de jornada*

Cualquier trabajador/a tendrá derecho a reducir su jornada con la consiguiente reducción proporcional de su salario, salvo que dicha reducción de su jornada se utilice para desarrollar trabajo en otra empresa o administración pública

Artículo 30.—*Bautizo o comunión*

De los hijos/as de los trabajadores/as, se tendrá derecho a un día en el caso de que la celebración coincida con el día de trabajo.

CAPÍTULO VI RETRIBUCIONES

Artículo 31.—*Incremento salarial*

1.-Las retribuciones del personal del OOAA Residencia de ancianos « Etxe Maitia » se incrementarán durante la vigencia del presente Acuerdo para cada año en las cuantías que se han establecido en el acuerdo regulador de las condiciones laborales del personal laboral del Ayuntamiento de Basauri vigente hasta el 31 de diciembre de 2.011.

2. Las retribuciones en el año 2009 se incrementarán, respecto de las tablas retributivas aprobadas para el año 2008, en el porcentaje que resulte equivalente al I.P.C. estatal del año 2008 más un 1%.

3. Las retribuciones en el año 2010 se incrementarán, respecto de las tablas retributivas aprobadas para el año 2009, en el porcentaje que resulte equivalente al I.P.C. estatal del año 2009 más el 1%.

4. Las retribuciones en el año 2011 se incrementarán, respecto de las tablas retributivas aprobadas para el año 2010, en el porcentaje resulte equivalente al I.P.C. estatal del año 2010 más el 1%.

5. Estos incrementos retributivos incluyen y absorben el 1% de la masa salarial de las Pagas Extras del año 2008 y del porcentaje, en su caso, que por este concepto sean establecidos por los Presupuestos Generales del Estado y/o de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 2009, 2010 y 2011.

Las partes asumen que estos incrementos para los años 2009, 2010 y 2011 contemplan a todos los efectos la totalidad de los incrementos retributivos posibles, de tal manera que no cabrán peticiones añadidas a los mismos y en particular que no cabe ninguna petición adicional que traiga causa de leyes de presupuestos estatal ni del País Vasco, de modo que estos incrementos pactados absorben, subsumen e integran cualquier mejora de cualquier naturaleza que pudiera alegarse

Artículo 32.—*Salarios*

La nomina queda estructurada de la siguiente manera:

- Sueldo Base: 80% del sueldo bruto.
- Plus puesto: 20% del sueldo bruto.
- Antigüedad: según trienio y grupos profesionales.
- Varios: pluses, viajes, etc.

Las bajas por enfermedad o accidentes, sean o no de trabajo, se abonarán desde el primer día, con el 100% del salario real, sin pluses de nocturnidad y festivos.

Artículo 33.—*Antigüedad*

La antigüedad será retribuida a los/as trabajadores/as cada tres años de servicio reconocido, se abonará en trienios en la cuantía correspondiente a cada grupo por trienio y mes.

Se abonará solo en 14 pagas al año. Los aumentos de antigüedad serán calculados desde el ingreso en la Residencia de Ancianos de Basauri.

34. artikulua.—Aparteko haborokinak

Hiru aparteko haborokin eta bakoitzari hileko gordina dagokio: apirilean, uztailean eta abenduan. Apirileko ordainsarian ez da antzintasuna gogoan hartuko.

35. artikulua.—Plusak

Gauean: plus hau jasoko dute 22:00etatik hurrengo eguneko 08:00ak arte lan egiten dutenek.

Jaiegunetan: plus hau jasoko dute igande eta jaiegunetan lan egiten dutenek

Distantzia: Lantokira joateko garraiobide publikoa behar dutenek beren bizilekuetatik lantokira joateko dagoen ibilbide laburren egiten duen zerbitzu publikorik merkeena erabiltzeko zenbatekoa lortzeko eskubidea izango dute. 2009an hilean 47 euro lortu ahalko dituzte, guztira; zenbateko hori 2010 eta 2011. urteetan igo egingo da, estatuko KPIren igoeraren arabera.

VII. KAPITULUA

SARRERAK, KARGU-UZTEAK ETA KITAPENAK**36. artikulua.—Kontratazioa**

Lanpostu berriak edo hutsak sortuz gero, barne-sustapenak lehenasuna izango du, eskutatako titulazio, gaitasun eta ahalmenaren betekizunak kontuan hartuko dituen azterketa murriztuaren bidez; puntuazioaren aldetik, berdintasuna egonez gero, lehenasuna emango zaio enpresan antzintasunik handiena duenari. Sistema horren bidez lanpostuak betez gero, lehiaketa, lehiaketa-oposizio edo oposizio librearen legezko sistemen bidez egingo da.

Lanpostuak ezingo ditu enpresak alde bakar batetik amortizatu, lanpostu bat bera ere ez, langileen ordezkariarekin adostasuna izan ezean.

Kalifikazio Epaimahaien osakeran, espezialitatearen printzipioa betetzen dela zainduko da. Epaimahaiakideen erdiak, behintzat, sartzeko eskatzen den arloko ezagutzari dagokion titulazioa eduki beharko du, eta guzti-guztiek maila akademiko bera edo handiagoa eduki beharko dute.

Epaimahai horietan udalak izendatutako kide bat eta langile bat izango dira; azken hori sindikatuen ordezkariak izendatuko du.

Epaimahaiak burua, idazkaria eta deialdiak erabakitako epaimahaiakideak izango dituzte. Kide-kopurua, gutxienez, bostekoa izango da.

Batzordeburua izango da buru, bestela, horrek eskuordetutako beste norbait, eta idazkaria egoitzako zuzendaria edo horrek eskuordetutakoa izango da. Epaimahaia batzordeburuak prestatuko du.

37. artikulua.—Kargu-uzteak eta kitapenak

Enpresan borondatez kargua uzten duen langileak zuzendaritzari 15 egun lehenago idatziz jakinarazi beharko dio; era berean, enpresak idatziz jakinarazi beharko die langileei kargu-uztea, 15 egun lehenago. 6 hilabete baino gehiagoko iraupena duten kontratuen kasuan, aurretiaz enpresak ez jakinarazteak langileari kalteak ordaintzeko eskubidea eragingo dio, aurretiaz jakinarazi beharreko eta ez jakinarazitako egun bakoitzeko soldata-egun bat, eta langileak aurretiaz ez jakinarazteak enpresari aurretiaz jakinarazi beharreko eta ez jakinarazitako egun bakoitzeko soldata-egun bat kentzeko eskubidea eragingo dio.

Era berean, egindako kitapen eta likidazio guztiak langileen ordezkariak ikus-onetsi beharko dituzte.

38. artikulua.—Ordezkapenak

Lan-antolaketa erakunde autonomoaren eskumenekoa da, zuzendaritza-organoen bidez, langileen legezko ordezkariarekin egin beharreko kontsulta eta negoziazioei kalte egin gabe, indarrean dagoen araudiaren eta hitzarmen honen arabera.

Artículo 34.—Gratificaciones extraordinarias

Tres gratificaciones extraordinarias de una mensualidad bruta cada una de ellas, cuya efectividad será en abril, julio, y diciembre. La paga de abril será sin antigüedad.

Artículo 35.—Pluses

Nocturnidad: percibirán este plus quienes trabajen entre las 22 horas de un día y las 8 horas del día siguiente.

Festivos: percibirán este plus quienes trabajen en domingos y festivos

Distancia: los/as trabajadores/as que necesiten medio de transporte para acudir al centro de trabajo tendrán derecho a percibir el importe de los servicios públicos a los que hubiera lugar, en su trayecto mas corto y mas barato desde su domicilio desde su domicilio hasta el centro de trabajo. Hasta un total de 47 euros mensuales en el año 2009, esta cantidad se vera incrementada en los años 2.010 y 2.011 con el incremento del IPC estatal.

CAPÍTULO VII

INGRESOS, CESES Y FINIQUITOS**Artículo 36.—Contratación**

Ante la creación de nuevos puesto de trabajo o vacante se concederá derecho preferente a la promoción interna mediante examen restringido que tenga en cuenta los requisitos de titulación, capacidad, y aptitud exigidos, dando preferencia en caso de igualdad de puntuación a las personas con más antigüedad en la empresa. En caso de que los puestos en cuestión fueran cubiertos por este sistema, se recurrirá a cualquiera de los sistemas legales de Concurso, Concurso-oposición u Oposición Libre

Ningún puesto de trabajo podrá ser amortizado de manera unilateral por la empresa, salvo acuerdo expreso con la representación de los trabajadores

En la composición de los Tribunales Calificadores, se velara por el cumplimiento del principio de especialidad. Al menos la mitad de los miembros del mismo, deberá poseer una titulación correspondiente al mismo área de conocimientos que la exigida para el ingreso, y la totalidad de los mismos de igual o superior nivel académico.

En dichos Tribunales figurara un miembro designado por el Ayuntamiento y otro del Personal, designado éste por la representación sindical.

Los Tribunales contarán con un/a Presidente/a, un secretario/a y los vocales que determine la convocatoria. El número de miembros, en ningún caso podrá ser inferior a cinco.

Actuara como Presidente/a, la Presidenta de la Corporación o miembro en quien delegue y como secretario/a, el Director de la Residencia o miembro en quien delegue. El tribunal lo confeccionara la Presidenta de la Corporación.

Artículo 37.—Ceses y finiquitos

El personal laboral que cese voluntariamente en la empresa, estará obligado a ponerlo en conocimiento de la dirección con una antelación de 15 días y de forma escrita, así mismo la empresa deberá notificar por escrito a los trabajadores/as su cese con 15 días de antelación, en aquellos casos de contratos de duración superior a 6 meses, la falta de preaviso de la empresa generará el derecho al trabajador/a a ser indemnizado con un día de salario por cada día de falta de preaviso, la falta de preaviso del trabajador/a, generará a la empresa el derecho de descontarle un día de salario por cada día de falta de preaviso.

Asimismo, todo finiquito y liquidación que se efectúe deberá ser visado por la representación de los/las trabajadores/as.

Artículo 38.—Suplencias

La organización del trabajo es facultad del OOAA a través de sus órganos de dirección, sin menoscabo del mantenimiento de las consultas y negociación que deba practicarse con la representación legal de los/as trabajadores/as, de acuerdo con la normativa vigente y el presente Acuerdo.

Langileak bertaratuko ez direla aurreikusiz gero (honako kausa hauengatik: aurreikusitako amatasun, aitatasun, opor, ezkontza, eszedentzia, ospitalizazio, eta abarregatik lizentziak), enpresak nahitaz ordezkatu beharko ditu lanpostu horiek.

Hutsegitea aurreikusita ez badago, ordezkapena ahalik eta epe laburrenean egin beharko da.

Ordezkapen-kontratuak nahiz beste kontratu batzuk aldi bate-rakoak baino ez dira izango, eta ezingo dute iraun lege egokiek agintzen dutena baino gehiago. Kasu horietarako, BAEn dauden lan-poltsak erabiliko dira. Lan-poltsa horiek eta, oro har, sartzeko prozesu guztiak, HAEEK daukan araudiaren arabera arautuko dira.

39. artikulua.—*Aldi baterako kontratuak*

Merkatuko eskakizun zehatzei, zeregin-pilaketei eta lan-gehiagikeriei aurre egiteko zerbitzuak emateko enpresak kontratatutako langileen kontratuak, nahiz eta horiek enpresaren ohiko jarduerak izan, gehienez 12 hileko iraupena izango dute, 18 hileko aldiari. 12 hil baino gutxiagoko iraupena badu, aldean arteko adostasunaz luzatu ahalko da, baina kontratuaren iraupena ezingo da gehienezko epe hori baino luzeagoa izan.

VIII. KAPITULUA

GIZARTE-ESKUBIDEAK

40. artikulua.—*Mediku-azterketak*

Mediku-azterketak egingo zaizkie urtero langileei, baina aurretiaz langileak onartu beharko du. Azterketa hori lanaldian egingo da eta egingo dituzten mediku-zerbitzuek emaitza langileari berari emango diote.

Langileren batek bere lanak eragindako gaixotasunik izanez gero, langileen ordezkariei jakinarazi beharko die, eta horiek negoziatio-batzordeari jakinaraziko diote; horrek, aztertu ondoren, Gizarte Segurantzari jakinaraziko dio, gaixotasun profesionaltzat aitortu dezan.

Langileren batek gaixotasun infekzio-kutsakorren bat izanez gero, kutsatuak Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio.

41. artikulua.—*Gizarte-arloko hobekuntzak*

Etxe Maitia erakunde autonomoko langileek mediku-arreten taularen eta Basauriko Udaleko langileentzat indarrean dauden laguntzen eskubidea izango dute, atal guztiei dagokionez. Taula erantsi da.

Laguntza horiek emateko, 2009. urtean 14.111 euroko partida prestatuko da, eta 2010 eta 2011. urteetan, partida hori estatuko KPIren igoeraren arabera igoko da.

Zenbateko hori erakunde autonomoko plantillarentzat osoa eta ekitaldi bakoitzeko gasturako gehienezkoa dela kontuan hartuta, hau da, eskabideei jarraiki zenbateko hori agortu ondoren, gainerako langile eskatzaileek hurrengo ekitaldiak arte ez dute eskubide hori izango.

Zuzendaritzak ikus-onetsi egingo ditu proposatu diren eskabide guztiak, fiskalizazioa bidali baino lehen; kasu bakoitzean, egokitzen jotzen duen dokumentazioa eskatu ahalko du, proposatutako gastua egiteko beharrezkoa justifikatzeko.

42. artikulua.—*Laneko arropa*

Langileak kontratatzean, bi uniforme oso emango zaizkie, eta horiek urtero berriztuko dira. Horiek garbitzea enpresaren ardura izango da.

43. artikulua.—*Maileguak eta aurrerakinak*

Gutxienez urtebeteko antzinasuna duten egoitzako langile finkoek 1.803,00 euro, 3.606,00 euro, 5.409,00 euro jaso ahalko dituzte, baina aurrerakin horiek 12, 18 edo 24 hilekotan itzuli beharko dira, hurrenez hurren. Zenbateko horiek erakundearen irizpenen arabera emango dira, baldin eta horiek emateko kausa justifikaturik eta premiazko beharrezanik badago.

Las ausencias previstas, por las siguientes causas (Licencias de Maternidad, Paternidad, Vacaciones, Matrimonio, Excedencias, hospitalizaciones previstas, etc) de un/a trabajador/a de su puesto de trabajo deberán ser obligatoriamente sustituidas por la empresa.

En caso de una ausencia no prevista esta sustitución deberá realizarse en el plazo de tiempo más corto posible.

Los contratos de sustitución y otros de carácter circunstancial serán exclusivamente temporales y su duración no excederá la especificada por las leyes correspondientes. Para estos casos, se utilizarán las bolsas de trabajo existentes en la RAB. Las bolsas de trabajo y en general todos los procesos de acceso se registrarán por la normativa del IVAP.

Artículo 39.—*Contratos temporales*

Los contratos del personal que haya sido contratado por la empresa con ocasión de prestar servicios para atender las exigencias circunstanciales del mercado, acumulación de tareas o exceso de trabajos, aun tratándose de la actividad normal de la empresa tendrán una duración máxima de 12 meses en un periodo de 18 meses. En caso de que se concierte por un plazo inferior a 12 meses, podrá ser prorrogado mediante acuerdo entre las partes, sin que la duración total del contrato puede exceder de dicho periodo máximo.

CAPÍTULO VIII

DERECHOS SOCIALES

Artículo 40.—*Revisiones médicas*

Se realizarán revisiones médicas anuales a todo el personal, previo consentimiento del mismo. Se realizará dentro de la jornada de trabajo y los servicios médicos que las realicen entregaran el resultado al propio trabajador/a.

En el supuesto de que un trabajador/a se viera afectado/a por una enfermedad contraída como consecuencia de su trabajo, deberá hacerlo saber a los/as delegados/as de personal que lo remitirán a la comisión negociadora, la cual, previo estudio, la transmitirá a la Seguridad Social con el fin de que la reconozca como enfermedad profesional.

En el caso de que detectase en un trabajador/a una enfermedad infecto-contagiosa, el/la afectado/a se verá obligado a informar a la Dirección.

Artículo 41.—*Mejoras sociales*

Los/as trabajadores/as, en activo del OOAA, Etxe Maitia, tendrán derecho a la tabla de atenciones medicas y ayudas vigentes para el personal laboral del Ayuntamiento de Basauri en todos sus apartados. Se adjunta tabla anexa.

Para atender dichas ayudas se habilitara una partida para el año 2.009 de 14.111 euros, en los años 2.010 y 2.011, esta partida se incrementara con IPC estatal.

Bien entendida que esta es una cantidad global y máxima de gasto por cada ejercicio para toda la plantilla del OOAA, esto es, una vez agotada esta cantidad en virtud de las distintas solicitudes, el resto de los/as trabajadores/as solicitantes deberán esperar a los ejercicios siguientes para tener derecho a la misma.

La dirección visará antes de enviar a fiscalización todas las peticiones que se planteen, quedando facultada para exigir en cada caso, la documentación pertinente en orden a justificar la necesidad de efectuar el gasto propuesto.

Artículo 42.—*Ropa de trabajo*

Al personal se le dotará de dos uniformes completos a la contratación, que serán renovados anualmente, corriendo la limpieza de los mismos a cargo de la Empresa.

Artículo 43.—*Prestamos y anticipos*

El personal fijo de la Residencia, con antigüedad mínima de un año, podrá percibir las cantidades de 1.803,00 euros, 3.606,00 euros, 5.409,00 euros debiendo reintegrar dichos adelantos en 12, 18 o 24 mensualidades, respectivamente que serán concedidos a criterio de la Entidad y siempre que exista causa justificada y necesidad perentoria.

Behar-beharrezkotzat hartuko dira honako hauen ondoriozkoak:

1. Ezkontzea.
2. Eskatzailea dibortziatu, banandu edo ezkontza baliogabetzea.
3. Ezkontidea edo seme-alabak hiltzea.
4. Seme-alabak jaiotzea.
5. Eskatzailea gaixorik egotea edo hari ebakuntza egitea.
6. Ohiko etxebizitza erostea.
7. Ohiko etxebizitza erostea, eta horrek sortutako banku-kredituak amortizatzea.
8. Ohiko etxebizitza zaintzeko beharrezko edo ezinbesteko obrak egitea.
9. Bizilekua lan-zentroa dagoen udalerrira aldatzea.
10. Sukalderako eta komunerako altzariak erostea.
11. Eskatzaileak zentro ofizialetan egindako ikasketengatik matrikularen gastuak.
12. Izaera berekoak diren eta kalifikazio bera duten bestelako egoerak.

Ohiko etxebizitza erosi, zaharberritu eta birgaitzeko mailegua eskatuz gero, zenbatekoa 7.900 euro-koa izan daiteke, 30 hilekotan itzuli beharrekoa. Kopuru hori urtero eguneratuko da, kontsumorako gainerako maileguentzako proportzio berean.

Nolanahi ere, mailegu bat eskatzeko aurreko maileguak itzuli beharko dira, eta aurrekontuak horretarako aukera eman beharko du. Horretarako, dagokion partida prestatuko da.

44. artikulua.—*Bizi- eta ezintasun-asegurua*

1. Etxe Maitia Egoitza erakunde autonomoak 44.000 euroko estaldura izango duen biziko eta ezintasun iraunkorreko, osoko edo absolutuko asegurua izango du bere kargura, langile guztientzat. Erakundearen eskumena duen gobernu-organok berariaz eta era formalean onesten duen egunaren hurrengo hilabetearen lehen egunetik izango ditu estaldura horrek ondorioak.
2. Ezintasun osoaren ondoriozko estaldura gauzatuko da, baldin eta langileak erakundea utzi behar badu.

45. artikulua.—*Erantzukizun zibileko asegurua*

1. Etxe Maitia Egoitza erakunde autonomoarentzat egiten dituen zerbitzuen garrantziagatik, kontratatutako baldintzen arabera, erantzukizun-motaren batean eragina izan dezakeen langileari erantzukizun zibileko asegurua jarriko dio Erakundeak.
2. Edonola ere, erantzukizun zibilagatik bermatutako arrisku-kapitala gehienez 33.000 eurokoa izango da. Estaldura horrek erakundearen gobernu-organok eskudunak berariaz eta modu formalean onetsi eta hurrengo hileko lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.
3. Edozelan ere, erakundearen kolektibo zehatz batzuentzat edo pertsona jakin batzuentzat, aurreko paragrafoan zehaztutako estaldura baino estaldura handiagoak kontratatuta baldin badaude, horiei eutsiko zaie; dena dela, estaldura handiago horiek izoztu, xurgatu edo banatu ahalko dira.

46. artikulua.—*Lanbide-prestakuntza eta -sustapena*

Lanbide-gaitasuna aberastu edo hobetzeko ikastaroetara doazen langileei matrikularen zenbatekoa ordainduko zaie; horretarako, aurretik, horietara bertaratu direla egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Hori guztia egiteko, ikastaroa hasi aurretik informazioa jaso eta zuzendaritzak ikus-onespena emango du. Horretarako, 3.504 euroko partida prestatuko da.

Tendrán la consideración de necesidades perentorias, las derivadas de:

1. Matrimonio.
2. Divorcio, separación o nulidad del matrimonio solicitante.
3. Fallecimiento del cónyuge o hijos/as.
4. Nacimiento de hijos/as.
5. Enfermedad o intervención quirúrgica del solicitante.
6. Adquisición de vivienda habitual.
7. Amortización de créditos bancarios con ocasión de adquisición de vivienda habitual.
8. Realización de obras necesarias o imprescindibles para la conservación de vivienda habitual.
9. Traslado de domicilio a la localidad donde se encuentre ubicado el centro de trabajo.
10. Adquisición de mobiliario de cocina y baño.
11. Gastos de matrícula derivados de estudios en centros oficiales por parte del solicitante.
12. Otras circunstancias de análoga naturaleza que merezcan dicha calificación.

En el caso de ser solicitado el préstamo para la adquisición, rehabilitación y reforma de la vivienda habitual, la cantidad puede ser de 7.900 euros a devolver en 30 mensualidades. Esta cantidad será actualizada anualmente en la misma proporción que para el resto de los préstamos de consumo.

En cualquier caso, la concesión de un préstamo no podrá realizarse hasta la devolución del anterior, y estará sujeta a disponibilidad presupuestaria. A tal efecto, se habilitará la partida correspondiente.

Artículo 44.—*Seguro de vida e Incapacidad*

1. El OAAA Residencia Etxe Maitia, a su cargo, para todo el personal, un seguro de vida e Incapacidad Permanente, Total o Absoluta que tendrá una cobertura de 44.000 euros. Esta cobertura tendrá efectos desde el primer día del mes siguiente a la aprobación expresa y formal por parte del órgano de gobierno competente de la institución.
2. La cobertura por la Incapacidad Total, se hará efectiva siempre y cuando el trabajador/a cause baja en la Institución.

Artículo 45.—*Seguro de responsabilidad civil*

1. El OAAA Residencia Etxe Maitia mantendrá, a su cargo, una póliza de responsabilidad civil en favor del personal que por el desempeño de sus funciones para su Institución y en relación con la importancia de las mismas puedan incurrir en dicho tipo de responsabilidad, de acuerdo con las condiciones contratadas.
2. En todo caso, el capital riesgo garantizado por este concepto de responsabilidad civil, no podrá superar la cobertura máxima garantizada de 33.000 euros. Esta cobertura tendrá efectos desde el primer día del mes siguiente a la aprobación expresa y formal por parte del órgano de gobierno competente de la institución.
3. En cualquier caso, se mantendrán, caso de existir en esta Institución para colectivos concretos o a personas determinadas, coberturas mayores ya existentes que la establecida en el párrafo anterior, sin perjuicio del carácter congelable, absorbible y distribuable del costo de las citadas mayores coberturas.

Artículo 46.—*Formación y promoción profesional*

A todo el personal que asista a cursos con el fin de ampliar o perfeccionar su capacidad profesional le será abonado el importe de la matrícula, previa presentación del justificante acreditativo, todo ello previa información anterior al curso y visto bueno de la Dirección. A estos efectos se habilitará una partida de 3.504 euros.

47. artikulua.—Euskalduntzea eta alfabetatzea

Alde biek Basauriko Udaleko langileen baldintzak arautzeko hitzarmenaren zazpigarren tituluan hitzartutakoari eusten diote zehazki, erakundeko langileen hizkuntza-eskubideen gaineko eskubideei buruzkoari.

48. artikulua.—Erretiro aurreratuak

60 urterekin: 30 hileko gordin.

61 urterekin: 23 hileko gordin.

62 urterekin: 18 hileko gordin.

63 urterekin: 13 hileko gordin.

64 urterekin: 8 hileko gordin.

65 urterekin erretiratzaren diren langile guztiak hileko gordin batekin konpentsatuko dira.

49. artikulua.—Txanda-kontratuak eta borondatezko erretiroko lanaldi partzialeko kontratuak

Etxe Maitia erakunde autonomoak, aplika daitekeen legeriak ezarritako betekizunei jarraiki, aukera emango du langileek erretiro partziala hartzeko, langileek hala eskatzen badute. Txanda-kontratu lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izango da.

50. artikulua.—Elkarkidetzak. Pentsio osagarrien sistema

1. Erakundea Elkarkidetzako Pentsio Osagarrien Sistemari atxikiko zaio; edonola ere, enplegatutako pentsio-sistemara modu boluntarioan atxikitzen direla bermatu beharko du.

2. Pentsio Osagarrien Sistemari atxikitako erakundea arduratuko da bere enplegatuen nominetan dagozkion deskontuak egi-teaz eta ekarpenak eta urterokoak garaiz sartzeaz.

3. Erakundeak ezarritako pentsio-plana kontrolatzeko eta jarraitzeko organoaren funtzionamendua erraztuko du eta arlo horretarako indarrean dagoen araudia beteko du.

50bis. artikulua.—Pentsio sistema osagarriak

Pentsio Sistema Osagarriari egindako ekarpenak hobetzeko, aparteko ekarpena egingo zaie sistema osagarri horiei egindako erakunde-ekarpenen onuradun diren langile guztiei, ordainketa bakarrean. Ordainketa hori abenduan egingo da; horrenbestez, ekarpenak, 2009ko urtarrilaren 1ean, 14 hilekotan, honela egingo dira:

Taldea		2009ko kuota
30/84 Legea		7/2007 Legea
A taldea	A1 azpitaldea	117,36
B taldea	A2 azpitaldea	95,84
C taldea	C1 azpitaldea	78,62
D taldea	C2 azpitaldea	65,71
E taldea	Lanbide-taldeak	65,71

Ekarpen horren onuradun izango dira lehendik Pentsio Sistema Osagarrietarako erakunde-ekarpenen onuradun ziren guztiak. Ekarpenen kudeaketa, hartzaileren betebeharrak eta itzultzeko prozedura, hala dagokionean, Basauriko Udalak Pentsio Sistema Osagarrietara egiten dituen ekarpenak arautu dituen eta indarrean den jarraibidean ezarritakoaren araberrak izango dira.

Artículo 47.—Euskaldunización y alfabetización

Ambas partes se remiten expresamente a lo pactado en el Título Séptimo del Acuerdo Regulador de las condiciones del personal laboral del Ayuntamiento de Basauri, del ejercicio de los derechos lingüísticos del personal laboral de la institución.

Artículo 48.—Jubilaciones anticipadas

A los 60 años: 30 mensualidades brutas.

A los 61 años: 23 mensualidades brutas.

A los 62 años: 18 mensualidades brutas.

A los 63 años: 13 mensualidades brutas.

A los 64 años: 8 mensualidades brutas.

A todo el personal que se jubile con 65 años se le compensará con una mensualidad bruta.

Artículo 49.—Contratos de relevo y jubilación voluntaria a tiempo parcial

El OAAA Etxe Maitia posibilitará, con los requerimientos establecidos en la legislación que resulte de aplicación, que los/as trabajadores/as que lo soliciten puedan acceder a la jubilación parcial; el contrato de relevo que se celebre será a jornada completa o a tiempo parcial.

Artículo 50.—Elkarkidetzak. Sistema de pensiones complementarias

1. La Institución deberá adherirse al Sistema de Pensiones Complementarias de Elkarkidetzak, asegurando en todo caso, la voluntariedad de la adscripción personal de los/as empleados/as al sistema de pensiones.

2. La Institución adherida al Sistema de Pensiones Complementarias, se encargará de efectuar los descuentos correspondientes en las nóminas de los/as empleados/as, y de ingresar las aportaciones y anualidades con puntualidad.

3. La Institución facilitará el buen funcionamiento de los órganos de control y seguimiento del plan de pensiones establecido, y el cumplimiento de lo previsto por la normativa vigente en este ámbito.

Artículo 50bis.—Sistemas complementarios de pensiones

Con la finalidad de mejorar las aportaciones a los sistemas complementarios de pensiones, se efectuará una aportación extraordinaria a todo el personal beneficiario de aportaciones institucionales a dichos sistemas complementarios, en una única paga que se realizará en el mes de diciembre del año en curso; de manera que las aportaciones a 1 de enero de 2009, en 14 mensualidades, resulten como a continuación se describe:

Grupo		Cuota 2009
Ley 30/84		Ley 7/2007
Grupo A	Subgrupo A1	117,36
Grupo B	Subgrupo A2	95,84
Grupo C	Subgrupo C1	78,62
Grupo D	Subgrupo C2	65,71
Grupo E	Agrupaciones Profesionales	65,71

Serán beneficiarios de dicha aportación quienes ya lo fueran de cualesquiera aportaciones institucionales a sistemas complementarios de pensiones. La gestión de las aportaciones, las obligaciones de los/las perceptores/as y el procedimiento de devolución, en su caso, se regirán por lo establecido en la vigente Instrucción reguladora de las aportaciones del Ayuntamiento de Basauri a los sistemas complementarios de pensiones.

2009. urteko urtarrilaz geroztik, Pentsio Sistema Osagarrietarako urteko erakunde-ekarpenak hurrengo urteetan eguneratzeko, 2008an jasotako kopurua, batetik, eta klausula honetako 1. atalean ezarritako ekarpen bereziaren prorrata, bestetik, batzearen emaitzari azarotik azarora urte arteko KPI aplikatuko zaio, aurreko ekitaldia eta haren aurrekoa kontuan hartuta.

51. artikulua.—*Sindikatuaren eskubide eta bermeak*

Basauriko Udaleko langileen hitzarmen arautzailean ezarritakoak izango dira: sindikatuko kide izateko eskubide, sindikatuaren ekintza, kolektiboaren ordezkaritza, bilera eta negoziazioaren erregimenaren gaineko seigarren titulua.

52. artikulua.—*Araudiaren interpretazioa eta horrek izan ditza-keen hutsak*

Araudizat ezarri da Basauriko Udaleko langileen lan-baldintzak Arautzeko Hitzarmena izeneko testua, 2011/12/31 arte indarrean egongo dena. Hori hitzarmen honi erantsi zaio, Etxe Maitia Egoitza erakunde autonomoko langileei zuzenean aplikatu dakizkiekeen alderdi guztietan; halaber, erakunde autonomo honetan egun indarrean dagoen baldintza-agiririk onuragarriena ere erantsi zaio, hitzarmen honen bidez aldatu ez denerako.

(II-7864)

Santurtziko Udala

IRAGARKIA

Euskara ikasteko helduentzako diru-laguntzak emateko araudia hasieran onetsi ondoren, eta jendaurrean azaltzeko legezko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, betiko onetsi dela ulertu da, onepen-akordioan ezarritakoaren arabera.

Beraz, bidezkoa da Euskara ikasteko helduentzako diru-laguntzak emateko araudiaren testu osoa argitaratzea.

Santurtzin, 2009ko urriaren 5ean.—Alkate-Udalburua, Ricardo Ituarte Azpiazu

EUSKARA IKASTEKO

HELDUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK
EMATEKO ARAUDIA

ZIOEN AZALPENEA

Santurtziko Udalbatzak, 2008ko ekainaren 26an, Euskaren Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko udal Arandia onartu zuen. Araudiko 29. artikulua zehaztutako helburuetako bat da herritar euskaldunen kopurua handitzea.

Araudiak zehaztutako helburuak lortu ahal izateko, Santurtziko Udalak udalerrian euskara berreskuratu eta normalizatzeko plan estrategikoa diseinatu eta onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko (EBPN) A2 ereduaren jarduera-lerroei jarraituz.

EBPNk biltzen dituen ekintzetako bat pertsona helduei euskara ikasteko diru-laguntzak ematea da, baldintza zehatzak betetzearen trukean (EBPN 1.b.01/3).

Diru-laguntza hauek emateko udalak diru-kopuru bat zehaztuko du urte bakoitzeko aurrekontuan, 4514 programan, oinarri honetan zehaztutakoarekin bat etorriz.

A partir del mes de enero de 2009, las aportaciones institucionales anuales en años sucesivos a los sistemas complementarios de pensiones, se actualizarán aplicando, a las cantidades percibidas en el 2008 más la prorrata de la aportación extraordinaria establecida en el apartado 1 de esta cláusula, el IPC interanual correspondiente al periodo noviembre/noviembre del ejercicio anterior y precedente.

Artículo 51.—*Derechos y garantías sindicales*

Serán los establecidos en el Acuerdo Regulador del personal laboral del Ayuntamiento de Basauri título sexto. del régimen de ejercicio del derecho de sindicación, acción sindical, representación, participación, reunión y negociación colectiva

Artículo 52.—*Interpretación y vacíos normativos*

Se establece como marco normativo, el texto denominado Acuerdo Regulador de la Condiciones de trabajo del personal laboral del Ayuntamiento de Basauri vigente hasta el 31/12/2.011, que se acompaña al presente acuerdo, en todos aquellos aspectos que sea de directa aplicación al personal laboral del OOAA residencia Etxe Maitia, así como el pliego de condiciones más beneficiosas actualmente vigente el este OOAA, en todo aquello que no haya sido modificado por el presente acuerdo.

(II-7864)

Ayuntamiento de Santurtzi

ANUNCIO

Aprobada inicialmente la normativa reguladora de la concesión de ayudas a personas adultas para el aprendizaje del euskera, no habiéndose producido reclamación alguna durante el plazo legal de exposición pública, se entiende elevada a definitiva la aprobación, según los términos del propio acuerdo aprobatorio.

En consecuencia procede su publicación íntegra del texto de la mencionada normativa reguladora de la concesión de ayudas a personas adultas para el aprendizaje del euskera.

En Santurtzi, a 5 de octubre de 2009.—El Alcalde-Presidente, Ricardo Ituarte Azpiazu

NORMATIVA REGULADORA

DE LAS AYUDAS A PERSONAS ADULTAS
PARA EL APRENDIZAJE DE EUSKERA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento pleno, aprobó el 26 de junio de 2008, la Ordenanza Reguladora de la Promoción y Normalización del Uso del Euskera en el municipio, cuyo artículo 29 recoge el objetivo de aumentar el número de hablantes euskaldunes.

Para alcanzar los objetivos recogidos en la ordenanza, el ayuntamiento de Santurtzi diseñó y aprobó el plan de recuperación y promoción del euskera en el municipio según el modelo A2 del Plan General Promoción del Uso del Euskera (EBPN).

Una de las acciones incluidas en el plan (EBPN 1.b.01/3) es la de ofertar a las personas adultas subvenciones para el aprendizaje de euskera a cambio del cumplimiento de determinadas condiciones.

A tal fin el Ayuntamiento realizará para cada ejercicio económico la correspondiente dotación presupuestaria en el programa 4.514, destinada a la concesión de estas ayudas, de acuerdo con las presentes bases.